

## **EGUN BAT ZUEKIN...**

Loreila Campandegui, 12 urte

*Baiona*

Egun bat zuekin  
Habia bero eta borobil batean.  
Egun bat zuekin  
Munduratzeko zoriontsua ospatzean.

Egun bat zuekin  
Goxo, zuen babespean.  
Egun eder bat zuekin  
Nire lehen irria askatzean.

Egun bat zuekin  
Nire "lapin hortzak" ateratzean.  
Egun bat zuekin  
Nire gorputzak neskatxa formak hartzean.

Egun sentimental bat zuekin  
Zuek nire malkoak xukatzean.  
Egun bat zuekin  
Fereka eta muxuen artean.

Egun emankorra zuekin  
Nire geroa aztertzean.  
Egun bat zuekin  
Nire kezkak leuntzean.

Egun txar bat zuekin  
Zuek elkarrengandik bereiztean!  
Halere,  
Hor zaudete beti nire bihotzean!